BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

4875

EBAZPENA, 2011ko irailaren 12koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Labein Tecnalia fundazioari aitortutako Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen izaera indargabetzen duena.

Ikusi dugu Labein Tecnalia fundazioari buruzko espedientea, Emakumeen eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundearen izaerari dagokiona.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2006ko irailaren 26ko Ebazpenaren bidez, Labein Tecnalia fundazioari Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen izaera aitortu zitzaion. Izaera hori azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez arautu zen.

Bigarrena.– 2011ko apirilaren 13an, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioko Erregistroaren egiaztagiri bat aurkeztu zen non jasotzen baita Tecnalia Research & Innovation fundazioak xurgatu zuela Labein Tecnalia fundazioa.

Hirugarrena.– Hortaz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2011ko apirilaren 18ko Ebazpenak Labein Tecnalia fundazioari aitortutako Emakumeen eta Gizonen Aukera-Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen izaera indargabetzeko espedienteari ekin zion. Ebazpen honek interesdunari 15 egun balioduneko epea eman zion alegazioak aurkezteko.

Laugarrena.– 2011ko apirilaren 18ko Ebazpena 2011ko apirilaren 27an jakinarazi zitzaion fundazio interesdunari, eta ez du inolako arrazoibiderik azaldu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bakarra.– Azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren 6.1 artikuluan ezartzen denez, lankidetza-erakundeak egiaztatzen ez badu aipatu alorrean diharduela, aitorpenak indarra galduko du ondorio guztietarako.

Horrenbestez, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Labein Tecnalia fundazioari aitortutako Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen izaera indargabetzea, aipatu fundazioa desegin delako, Tecnalia Research & Innovation fundazioarekin bat egitearen ondorioz.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritakoa betez.

Laugarrena.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Beraz, ebazpenaren aurka, interesdunek berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 12a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.